



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2015eko abenduaren 28, astelehena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- **AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2015.11.23).**

2.- **2015eko AURREKONTUAREN 2/2015 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.**

3.- **LIBURUTEGI AMANKOMUNAREN 1 ETA 2 OBRA-ZIURTAGIRIAK ONARTZEA.**

4.- **UDALBILTZA PARTZUERGOAN UDAL ORDEZKARIA IZENDATZEA.**

5.- **206/2015 ALKATETZA-DEKRETUAREN BERRESPENA. DEKRETU HORREN BIDEZ, EUSKAL FONDOKO UDAL-ORDEZKARIA ALDATZEA ERABAKI ZEN.**

6.- **OMBU GURASO ELKARTEAK AURKEZTUTAKO ESKAERA.**

7.- **“EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!” MOZIOA, EH BILDUK AURKEZTUA.**

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **28 de Diciembre de 2.015, lunes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

ORDEN DEL DÍA

1.- **APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (23.11.2015).**

2.- **APROBACION DE LA MODIFICACION DE CREDITOS Nº 2/2015 DEL PRESUPUESTO DE 2.015**

3.- **APROBACION DE LOS CERTIFICADOS DE OBRA Nº 1 Y 2 DE LA BIBLIOTECA MANCOMUNADA.**

4.- **NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTE MUNICIPAL EN UDALBILTZA PARTZUERGOA.**

5.- **RATIFICACION DEL DECRETO DE ALCALDIA Nº 206/2015, POR EL QUE SE ACORDO EL CAMBIO DE REPRESENTANTE MUNICIPAL EN EUSKAL FONDOA.**

6.- **SOLICITUD PRESENTADA POR OMBU GURASO ELKARTEA.**

7.- **MOCION “EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!” PRESENTADA POR EH BILDU.**



ZIZURKILGO UDALA

**8.- ALKATEAREN DEKRETUAK
JAKINARAZTEA (2015/200tik 2015/218ra).**

9.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Zizurkilen, 2015eko abenduaren 23an

Alkatea.

**8.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE
ALCALDÍA (200/2015 al 218/2015).**

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 23 de Diciembre de 2.015

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2015eko ABENDUAREN 28an EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 28 DE DICIEMBRE
DE 2.015**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA/ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu)

Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)

Arkaitz Zaldúa Jauregi (EH Bildu)

Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.)

José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)

Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu)

Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.)

María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabosteko abenduaren hogeita zortziko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udaltzako bildu da, Alkate jaunaren lehendakari izatepean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzaekin. Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) zinegotzia ez da etorri.

Lehendakari izatepean aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veintiocho de Diciembre de dos mil quince, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo la concejal Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
(2015.11.23).**

Udalbatzak, ahobatez, erabaki du 2015eko azaroaren 23an egindako Bilkuraren Akta onartzea.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL
ACTA DEL PLENO ANTERIOR
(23.11.2015).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 23 de Noviembre de 2.015



ZIZURKILGO UDALA

2.- 2015eko AURREKONTUAREN 2/2015 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

Zizurkilgo Udal honetako 2015eko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Jarraian, eta proposamena ikusirik, Udalbatzak bozketa egin du proposamena onartzeko. Emaita honako hau izan da:

- Aldeko botoak: 7 (6 EH Bildurenak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 3 (3 E.A.J.-P.N.V.renak).

Hortaz, Udalbatzak honako hau erabaki du, botoen erabateko gehiengoz:

Lehen.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2/2015 zenbakiko Kreditu Aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta Akta honen I Eranskinan argitaratzen den kapituluko laburpenaren arabera.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontua onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

2.- APROBACION DE LA MODIFICACION DE CREDITOS Nº 2/2015 DEL PRESUPUESTO DE 2.015

Dada lectura del expediente de modificación de créditos, mediante créditos adicionales que afecta al Presupuesto de 2.015 de este Ayuntamiento de Zizurkil.

Visto el informe emitido por el Secretario-Interventor, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa.

Visto el informe favorable y propuesta de aprobación formulado por la Comisión Informativa de Hacienda.

Seguidamente y vista la propuesta, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 7 (6 de EH Bildu y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 3 (3 de E.A.J.-P.N.V.).

Por lo que la Corporación, por mayoría absoluta de votos, acuerda:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante créditos adicionales nº 2/2015, que afecta al Presupuesto del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y resumen por capítulos que se detalla en el Anexo I de este Acta.

Segundo.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto.



ZIZURKILGO UDALA

3.- LIBURUTEGI AMANKOMUNAREN 1 ETA 2 OBRA-ZIURTAGIRIAK ONARTZEA.

Liburutegi amankomunaren obren 1. eta 2. Ziurtagiriak aurkeztu dira.

Udal teknikoen eta Ogasuneko Batzordearen aldeko txostenak ikusi dira.

Ondoren, Udalbatzak ziurtagiri hauek onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 10 (6 Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, aho batez, aurkeztutako bi Ziurtagiriak onartzea erabaki da: 71.980,44 eurokoa lehena eta 181.299,08 eurokoa bigarrena.

4.- UDALBILTZA PARTZUERGOAN UDAL ORDEZKARIA IZENDATZEA.

Zizurkilgo Udala, Udalbiltza Partzuergoko kide izatea onartu da, eta, hori dela eta, beharrezkoa da udal-ordezkarri bat izendatzea partzuergo horretarako.

EH Bilduk proposatu du José María Luengo Zapirain Alkate Jauna izatea udal-ordezkaria.

Jarraian, eta proposamena ikusirik, Udalbatzak bozketa egin du proposamena onartzeko. Emaitza honako hau izan da:

- Aldeko botoak: 6 (6 EH Bildurenak).
- Aurkako botoak: 3 (3 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Abstentzioak: 1 (1 S.V.-E.S.rena).

3.- APROBACION DE LOS CERTIFICADOS DE OBRA Nº 1 Y 2 DE LA BIBLIOTECA MANCOMUNADA.

Se presentan las Certificaciones nº 1 y 2 de las obras de la biblioteca mancomunada.

Se da cuenta de los informes favorables de los técnicos municipales y de la Comisión de Hacienda.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación corresponde para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 10 (6 de Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que, por unanimidad, se acuerda aprobar las dos Certificaciones presentadas: la primera por importe de 71.980,44 euros y la segunda por importe de 181.299,08 euros.


4.- NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTE MUNICIPAL EN UDALBILTZA PARTZUERGOA.

Habiendo sido aceptado el Ayuntamiento de Zizurkil como miembro de Udalbiltza Partzuergoa, es necesario nombrar un representante municipal en dicho consorcio.

EH Bildu propone que el representante municipal sea el Alcalde, Don José María Luengo Zapirain.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación corresponde para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (6 de Bildu,).
- Votos en contra: 3 (3 de E.A.J.-P.N.V.).
- Abstenciones: 1 (1 de S.V.-E.S.).



ZIZURKILGO UDALA

Hortaz, Udalbatzak, botoen gehiengoz, adostu du José María Luengo Zapirain Alkate Jauna izendatzea Udalbiltza Partzuergoan Zizurkilgo Udalaren ordezkari.

5.- 206/2015 ALKATETZA- DEKRETUAREN BERRESPENA. DEKRETU HORREN BIDEZ, EUSKAL FONDOKO UDAL-ORDEZKARIA ALDATZEA ERABAKI ZEN.

Azaroaren 25ean sinatutako 206/2015 Alkate Dekretuaren berri ematen da. Horren bidez, Mikel Arrastoa Agote jauna, Euskal Fondoan udal ordezkaria izendatua izan zen.

Jarraian Udalbatzak bozketa egin du berrespena onartzeko. Emaita honako hau izan da:

- Aldeko botoak: 6 (6 EH Bildurenak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 4 (3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).

Beraz, Udalbatzak, botoen gehiengoz, aipatutako Dekretua berrestea erabaki du.

6.- OMBU GURASO ELKARTEAK AURKEZTUTAKO ESKAERA.

Presentes en el Salón varias madres en representación de Ombú Guraso Elkartea, solicitan del Ayuntamiento su apoyo a la petición que van a presentar a la Delegación de Educación del Gobierno Vasco para que los escolares de Zizurkil puedan realizar los estudios en el pueblo hasta los 16 años.

A la vista de ello, la Corporación, por unanimidad, acuerda apoyar la solicitud presentada.

7.- “EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA!” MOZIOA, EH BILDUK AURKEZTUA.

Por lo que la Corporación, por mayoría de votos, acuerda nombrar representante de este Ayuntamiento en Udalbiltza Partzuergoa al Señor Alcalde, Don José María Luengo Zapirain.

5.- RATIFICACION DEL DECRETO DE ALCALDIA Nº 206/2015, POR EL QUE SE ACORDO EL CAMBIO DE REPRESENTANTE MUNICIPAL EN EUSKAL FONDOA.

Se da cuenta del Decreto de Alcaldía nº 206/2015, de 25 de Noviembre, por el cual se acuerda designar a Don Mikel Arrastoa Agote como representante municipal en Euskal Fondoa.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación corresponde para su ratificación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (6 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 4 (3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).

Por lo que la Corporación, por mayoría de votos, acuerda ratificar dicho Decreto.

6.- SOLICITUD PRESENTADA POR OMBU GURASO ELKARTEA.

Presentes en el Salón varias madres en representación de Ombú Guraso Elkartea, solicitan del Ayuntamiento su apoyo a la petición que van a presentar a la Delegación de Educación del Gobierno Vasco para que los escolares de Zizurkil puedan realizar los estudios en el pueblo hasta los 16 años.

A la vista de ello, la Corporación, por unanimidad, acuerda apoyar la solicitud presentada.

7.- MOCION “EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA!” PRESENTADA POR EH BILDU.



ZIZURKILGO UDALA

Akta honen II Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Alkateak adierazi du azken orduan Villabonako Udalak ez duela babestu mozio honen bidez deitutako manifestazioa.

Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamenak onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (6 EH Bildurenak eta 3 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 S.V.-E.S.rena).

Beraz Udalbatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

8.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2015/200tik 2015/218ra).

2015eko azaroaren 23tik abenduaren 18ra Alkateak sinatutako 2015/200etik 2015/218ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

El concejal Don José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak), solicita de la Alcaldía una respuesta a los tres escritos presentados el pasado día 18 de Diciembre (Registros de Entrada nº 1250, 1251 y 1252).

El Alcalde le comunica que se están dando pasos y realizando gestiones para solventar todos los problemas que se exponen en los mencionados escritos.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo II del presente Acta.

El Alcalde manifiesta que, a última hora, el Ayuntamiento de Villabona no apoya la manifestación convocada por esta Moción.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (6 de EH Bildu y 3 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 1 (1 de S.V.-E.S.).

Por lo que, el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

8.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (200/2015 al 218/2015).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 200/2015 al 218/2015 firmados por la Alcaldía entre el 23 de Noviembre y el 18 de Diciembre de 2015 cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

El concejal Don José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak), solicita de la Alcaldía una respuesta a los tres escritos presentados el pasado día 18 de Diciembre (Registros de Entrada nº 1250, 1251 y 1252).

El Alcalde le comunica que se están dando pasos y realizando gestiones para solventar todos los problemas que se exponen en los mencionados escritos.



ZIZURKILGO UDALA

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeita hamabost minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y treinta y cinco minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

**O.I.
ALKATEA.**

**Vº Bº
EL ALCALDE.**





ZIZURKILGO UDALA

HANDITZEN DIREN SARREREN PARTIDAK - PARTIDAS DE INGRESO CUYA ASIGNACION AUMENTA

			PRESUPUESTO	MODIFICACION	NUEVO
			ACTUAL		PRESUPUESTO
		CAPITULO 3 KAPITULUA			
1300.312.000.00.01	21	OTORGAMIENTO LICENCIAS URBANISTICAS	2.500 €	2.500 €	5.000 €
		TOTAL CAPITULO 3 KAPITULU GUZTIRA	2.500 €	2.500 €	5.000 €
		CAPITULO 4 KAPITULUA			
0900.420.000.00.01	39	PARTICIP. TRIBUTOS CONCERTADOS (FFFM)	1.751.610 €	56.465 €	1.808.075 €
1500.420.000.00.99	63	DIPUTACION. SUBV. PARTICIPACION CIUDADANA	- €	8.000 €	8.000 €
0600.550.000.00.01	62	DIPUTACION. SUBV. UDALTZAIN PROGRAMA	- €	1.350 €	1.350 €
		TOTAL CAPITULO 4 KAPITULU GUZTIRA	1.751.610 €	65.815 €	1.817.425 €
		CAPITULO 5 KAPITULUA			
0900.549.000.01.01	53	REEMBOLSO DE OTROS GASTOS	100 €	2.720 €	2.820 €
		TOTAL CAPITULO 5 KAPITULU GUZTIRA	100 €	2.720 €	2.820 €
		CAPITULO 6 KAPITULUA			
1300.651.000.00.01	64	APROVECHAMIENTOS URBANISTICOS	- €	27.865 €	27.865 €
		TOTAL CAPITULO 6 KAPITULU GUZTIRA	- €	27.865 €	27.865 €
GEHIKUNTZA GUZTIRA - TOTAL INCREMENTOS			1.754.210 €	98.900 €	1.853.110 €



ZIZURKILGO UDALA

I ERANSKINA – ANEXO I

MODIFICACION DE CREDITOS 2/2015 KREDITU ALDAKETA

HANDITZEN DIREN GASTUEN PARTIDAK - PARTIDAS DE GASTO CUYA ASIGNACION AUMENTA

			PRESUPUESTO	MODIFICACION	NUEVO
			ACTUAL		PRESUPUESTO
		CAPITULO 2 KAPITULUA			
0100.220.337.20.01	130	MATERIAL VARIO PARA ACTIVIDADES GAZTEZULO	- €	200 €	200 €
0600.221.153.21.05	273	VESTUARIO LIMPIADORAS EDIFICIOS	- €	400 €	400 €
0600.221.153.40.09	129	PRODUCTOS LIMPIEZA LOCAL BRIGADA OBRAS	- €	200 €	200 €
0800.226.170.00.99	191	COM. BASERRITAR/MEDIO AMB: ASTE BERDEA	- €	200 €	200 €
0800.226.419.00.99	294	COM. BASERR/MEDIO AMB: ELIMINAR COLMENAS	- €	100 €	100 €
		TOTAL CAPITULO 2 KAPITULU GUZTIRA	- €	1.100 €	1.100 €
		CAPITULO 6 KAPITULUA			
0300.623.323.10.01	139	NUEVO SISTEMA CALEFACCION PM OTAÑO ESKOL	- €	47.000 €	47.000 €
0700.643.332.10.01	205	DIRECCION OBRA REFORMA ATXULONDO	- €	11.400 €	11.400 €
0400.683.342.10.02	141	VESTUARIOS DEL CAMPO DE FUTBOL	37.000 €	30.000 €	67.000 €
0700.683.338.00.02	236	NUEVO ESCENARIO PARA FESTEJOS	- €	9.000 €	9.000 €
1000.685.912.00.99	123	MAKILA DEL ALCALDE	- €	400 €	400 €
		TOTAL CAPITULO 6 KAPITULU GUZTIRA	37.000 €	97.800 €	134.800 €
		GEHIKUNTZA GUZTIRA - TOTAL INCREMENTOS	37.000 €	98.900 €	135.900 €



II ERANSKINA – ANEXO II

GIZA ESKUBIDEAK, IRTENBIDEA, BAKEA

ZIZURKILGO UDALA

2015 ABE. 23

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia1268.....

ZIZURKILGO UDALA

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!

Urtero bezala, neguan murgildu garen honetan, gabon jaietako egun bereziak iritsi zaizkigu Aiztondo bailarara. Urteko azkenak eta urte berriko lehen egun hauek, senide eta lagunekin egoteko, Olentzerori ongi etorria egiteko, aspaldi ikusi gabekoak berriz ere ikusteko, elkar besarkatzeko, herriko giroaz gozatzeko, otordu goxoak egiteko... egunak izan ohi dira. Era berean, herritik urrun daudenak eta gure artean izaterik ez dutenak gogoan izateko, eta beren familiei babesa eta elkartasuna adierazteko egunak ere badira honako hauek.

Amasa - Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul eta Alkizako udal ordezkariok, euskal presoek pairatzen dituzten eskubide urraketak gaitzesten ditugu eta espainiar eta frantziar Estatuei eskubide hauek bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzatela exijitzen diegu. Bada garaia herri honetan behin betiko konponbidea eta bakea eskuratzeko, baina hori ez da posible izango presoan eta beraien familia eta lagunak giza eskubideak urratzen dituzten kartzela politikak behin betiko amaitu gabe.

Estatuek ordea, gaur gaurkoz ez dute norabide horretan aldaketarik egiteko inongo borondaterik agertu. Egoera honen aurrean, erakunde publiko zein herritarrek asko egin dezakegula uste dugu, ez da iritsi daitekeenaren zain eta geldirik egoteko unea, herri honen gehiengoak aldaketak eskatzen ditu eta zentzu horretan herritarrek mobilizatzea beharrezkoa dela ikusten dugu.

Honenbestez, Aiztondo bailarako udal ordezkariok, datorren abenduaren 31n arratsaldeko 19:00etan, Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik irten eta Villabonako Errebote plazan amaituko den manifestazio isila deitzea erabaki dugu.

Hauek dira manifestazio honen bidez, espainiar eta frantziar Estatuei helarazi nahi dizkiegun oinarritzko eskaerak:

1 - Dispersioa amaitzea eta euskal presoak euskal herriratzea.

Beharrezkoa da presoek eta batez ere beren familia eta lagunei bidegabeko zigor erantsia ezartzen dien sakabanaketa politikarekin behin betiko amaitzea.

2 - Gaixotasun larri edota sendaezinak dituzten presoan kaleratzea.

Gaixotasun sendaezinak dituzten presoek espetxetik irten eta etxetik hurbil dagoen erietxean egoteko eskubide osoa dute, hau espainiar legedian bertan jasota dago. Beraz, eskubide hau errespetatzea eta larri gaixo dauden 12 presoan berehalako kaleratzea exijitzen dugu.

3 - 70 urtetik gora dituzten presoak kaleratzea.